**KOSTUEN EGITURA:**

Gure proiektua aurrera eroateko beharrezkoa da urte batean izan ahal doguzan kostuak zehaztea eta kuantifikatzea. Horretarako, gure baliabideen kostuak aztertzeko eta bakoitzak kostu finkoen edo kostu aldakorren artean sailkatzeko beharra dogu.

Alde batetik, kostu finkoei jagokenez, argi daukagu bulego zentral bat izan behar dogula, eta, Bilboko Deustuko auzoan kokatuko dogula kontutan hartuz eta 75m2-ko bulegoa gure sortu barri enpresarentzat ideala izango litzatekela kontutan hartuz, lokal bat alokatu beharko dogu, beraz, lokalaren alokairua kostu finko bat izango litzateke. Beste kostu finko batzuk izango lirateke behar izango doguzan langileen soldatak, esaterako aplikazioa diseinatzeko eta garatzeko talde teknikoa: software ingeniari bi, diseinadore bat eta gureak (3).

Gainerako kostu finkoak hurrengoak izango lirateke: lokalean gastatutako ura, argia eta gasa; udalerriko zergak, lizentziak eta software herramientak, telekomunikazio zerbitzuak, aseguruak eta bulegorako materiala. Beste alde batetik, zenbait kostu aldakor izango geunkez, esaterako gure enpresarako merchandising-a egitea pentsatu dogu, eta horretarako kontutan hartu behar dogu enpresa bati materialak erostearen eta beste enpresa bati produktuak fabrikatzea eskatzearen kostuak, produktuak enbalatzearen eta transportatzearen kostuak gehituta. Gainera, gure produktu finalari buruzko publizidadea egin nahi dogu beste aplikazioetan edo sare sozialetan.

| **Kostu finkoak** | | **Hilabetero** |
|---|---|---|
| Lokala | Argia | 420€ |
| | Ura | 63,84€ |
| | Gasa | 35€ |
| | Alokairua | 750€ |
| Lizentziak eta software herramientak | Zerbitzuak hodeian | 470€ |
| | Garapen softwarerako lizentzia | 180€ |
| Telekomunikazio zerbitzuak | Internet-a eta telefono finkoa | 70€ |
| Aseguruak | Erantzukizun zibileko asegurua | 47,91€ |
| | Bulego asegurua | 22,91€ |
| Kostu | Bulegorako | 50€ |

| | | |
|---|---|---|
| administratiboak | materiala | |
| Soldatak | Software ingeniariak (2) | 4.700,00€ |
| | Diseinadore grafikoa (1) | 2.300€ |
| | Gu (3) | 6.000€ |
| Marketin + distribuzioa | Publizidadea | 500€ |
| | Komisioak | 150€ |
| **Kostu aldakorrak** | | **Hilabetero** |
| Merchandising | Materialak | 1.000€ |
| | Fabrikazioa | 600€ |
| | Enbalatzea | 200€ |
| | Garrioa | 350€ |
| GKE-en mantimendu gastuak | Bolondres bakoitzeko | 0,50€ |
| **Guztira** | | 17.931,76€ |